

1997-98ko IKASURTEA.

OSOGUNEKO ERAKASKERA.

1. Izabak ezagutu zuena ber ilobaren maina!
2. Errazue zertako.
- ① - Erakutsi bizkarkariaren gogo ona.
- ② - Erakutsi alokatzailearen trufa eta bizkarkari ez zela zozoa.

II

ONDORIOTASUNA

Bruno mutiko erna da. Badu izaba xahar bat frango aberatsa eta laket lakioko, haren iloba bakarra izanez, andere xaharrak bere ontasunak oro uzten baliozka.

Nahiz animaleak higuin dituen, maiz badoako bisitaz izabari: hunek badu xakur itsusi bat. Illobak erakusten du xakurraren alderat atxikimendu handi bat; dena maina da horrekin, perekatzen du, ekartzen diozka azukrezko onkeriak, hitzik amultsuenak erraiten diozkalarik.

Izaba halako batez hiltzen da, ez baita mirakulu zuen adin handian eta ehortzeta ederrak egiten diozkate.

Ondoko egunetan adixkide batek Bruno egiten du buruz buru eta atzen dio:

—Eta ondoriotasuna? Kontent ahal haiz. Eskertu bide hu, haren xakur itsusia hain amultsuki artatzen baihuen!

—Ba zera! Ez da autak hura baizik utzi! (da autak = elle m'a)

BIZKARKARIA ETA HIRU ERRAN BALIOSAK

Gizon batek zare batean bazauzkan hamar botoila berina finezkoak eta botoila horietan edari bat arradoenatarik. Berak ezin karga hori karreatuz, bizkarkari bat alokatu zuen eta hitzeman zion bide nabar hiru erran balios erakutsiko ziozkala. Bidearen laurdena egin zutelarik gizonak atera zion: "Nahuka lehen errana?" Baietz, eta hauxe jalgi zuen: "Nehork erraiten badauk hobe dela gosea guti jatea baino, ez zakala sinets!" Bidearen erdira orduko bizkarkariak bigarren errana galde egin zuen. Hauxe izan zen: "Nehork erraiten badauk hobe dela ibiltzea pausatzea baino, ez sinets!"

—Bai, ihardetsi zuen bizkarkariak. Etxerat hurbildu zirenean, pausatu zuten zarea, hirugarren erran baliosa eskatuz. Eta gizonak jalgi zion:

"Nehork erraiten badauk badela munduko bizkarkarietan hi baino zozoagorik, ez zakala sinets!" Orduan ekartzaleak altxatu zuen zarea eta aurdiki ahalik eta bortizkiena, edari eta beiraki funditurik zaudela bidearen erdi-erdian.

ADITZ IKASKUNTZA

- |                   |                    |
|-------------------|--------------------|
| 31. laket lakioko | 32. uzten baliozka |
| 33. diozkalarik   | 34. badoako        |
| 35. zauzkan       | 36. ez zakala      |
31. IZAN. Régime indirect. Conditionnel.

Hura izan liteke = il serait (ou pourrait être)  
 Hura (lui) izan lekidake = il me serait = lakiket  
 " lekiyuke = il vous serait = lakizuke  
 " lekioko = il lui serait = lakioko  
 " lekiyuke = il nous serait = lakigyuke  
 " lekiyuke = il vous serait = lakizyuke  
 " lekioko = il leur serait = lakioko

32 UKAN. Conj. à dble cplt. Suppl. éventuel 1ère forme

Objet singulier. Cplt indir. sing. NERI = A MOI

Zuk bazinaut = si vous me l'aviez	Emaiten
Harek balaut = s'il me l'avait	bazinau
Zuek bazinaudate = si vous me l'aviez	si vous me le
Heiek balaudate = s'ils me l'avaient	donnerez

HARI = A LUI

Nik banio = si je le lui avais	Emaiten
Zuk bazinio = si vous le lui aviez	banio
Harek balio = s'il le lui avait	si je le lui donnais
Guk baginio = si nous le lui avions	
Zuek baziniote = si vous le lui aviez	
Heiek baliote = s'ils le lui avaient	

Obj. pluriel. Cplt indir. sing. HARI = A LUI

Nik banizkio = baniozka = si je les lui avais
Zuk bazinizkio = baziniozka = si vous les lui aviez
Harek balizkio = baliozka = s'il les lui avait
Guk baginizkio = baziniozka = si nous les lui avions
Zuek bazinizkiote = baziniozkaté = si vous les lui aviez
Heiek balizkiote = baliozkaté = s'ils les lui avaient

33 UKAN. Conj. à dble cplt.

Objet pluriel. Cplt indir. sing.

Nik dizkiot = diozkat = je les lui ai  
 Zuk dizkiogu = diozkaugu = vs les lui aviez  
 Harek dizkiot = diozka = il les lui a  
 Guk dizkiogu = diozkaugu = vs les lui avions  
 Zuek dizkiogu = diozkaugu = vs les lui aviez  
 Heiek dizkiote = diozkaté = ils les lui ont

34. JOAN. Régime indir. Présent

(Hura) doa = il va  
 Hura (lui) doakit = il me va  
 doakizu = il vous va  
 doakit = il lui va  
 doakizu = il nous va  
 doakizue = il vous va  
 doakie = il leur va